

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### GIZARTE POLITIKEN SAILA

**222/2026 Erabakia, apirilaren 14koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zerbitzuan ari diren funtzionarioen ordainsariak ehuneko 1,5 handitzeari 2026ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin**

Ordainsariak direla-eta funtzio publikoan indarrean dagoen lege araubidea hauexek arautzen dute: urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, enplegatu publikoaren oinarrizko estatutuaren testu bategina onartzen duenak; Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legea eta hura garatzeko zenbait arau, eta, bereziki, euskal administrazio publikoetako funtzionarioen ordainsariei buruzko uztailaren 30eko 207/90 Dekretua.

Aipatutako arauen arabera, oinarrizko ordainsarien (soldata, hirurtekoak eta aparteko ordainsariak) zenbatekoa Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak zehazten du; destino-osagarriaren zenbatekoa Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen Legeak, eta berariazko osagarria eta ordainsari osagarriak Euskadiko administrazio publikoek.

Sektore publikoaren zerbitzuko langileen 2026rako ordainsariei dagokienez, sektore publikoaren eremuko ordainsarien arloan presako neurriak onartzen dituen abenduaren 2ko 14/2025 Errege Lege Dekretuak honako hau ezartzen du 2.1 artikuluan:

“2026. urtean, sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsariak ehuneko 1,5eko igoera orokorra izan ahal izango dute gehienez, 2025eko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, azken horietan errege lege-dekretu honetan onartutako ordainsari-igoera barne hartuta. Ordainsari-igoera hori homogeneotasunaren arabera hartuko da kontuan konparazioaren bi aldietarako, bai langileei dagokienez, bai langileen antzintasunari dagokionez, eta 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak».

Era berean, 2026ko martxoaren 2an, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu da Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluaren Erabakia, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsarien 2026rako igoera, abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 122.2.a).1 artikuluan araututako lanpostu-mailako osagarria eguneratuz, 2025. urteari dagokionarekin alderatuta ehuneko 1,5eko igoerarekin.

Arabako Foru Aldundiaren aurrekontu-aurreikuspenei dagokienez, Arabako Lurralde Historikoaren 2026rako aurrekontua gauzatzeari buruzko abenduaren 16ko 20/2025 Foru Arauaren 16.1 artikulua ezartzen duenez, Arabako Foru Aldundiko eta foru-erakunde autonomoetako funtzionarioen eta lan-kontratudun langileen ordainsari osoak 2026rako igo egingo dira, 2025eko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, foru-arau horretan aurreikusitakoaren arabera, alderatutako bi aldietarako homogeneotasunaren arabera, bai langileen kopuruari eta antzintasunari dagokienez, eta Estatuko oinarrizko legerian ezarritako mugak gainditu gabe.

Bestalde, foru-arau horren bigarren xedapen gehigarriak ordainsarien igoera bat ezartzen du 2026ko ekitaldirako. Igoera hori Arabako Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak eta horretarako baimena duten foru-sektore publikoko gainerako entitateen organo eskudunek zehaztuko dute, eta, gehienez ere, Estatuko oinarrizko legerian muga orokor gisa ezarritakoa izango da.

Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretuak, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen egitura eta funtzionamenduaren erregelamendua onartzen duenak, 11.g) artikuluan xedatutakoaren arabera, Gizarte Politiketako Departamentuko foru diputatuari dagokio, erakunde autonomo horren Administrazio Kontseiluko presidentea den aldetik, urtero proposatzea Gobernu Kontseiluari erakunde horretako langileen ordainsari-araubidea eta soldata-baldintzak aplikatzeko.

Hala, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak, 2026ko apirilaren 1ean egindako bilkuran, Foru Gobernu Kontseiluari proposatu dio onar dezala Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zerbitzuko langileen ordainsarien ehuneko 1,5eko igoera osagarria. Era berean, martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren 8.1.b).6 artikulua Gobernu Kontseiluari esleitzen dio foru-administrazio horren zerbitzura dauden langileen lan-baldintzak zehazteko eta onartzeko eskumena.

Horregatik guztiagatik, Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu eta gero, honako hau

#### ERABAKITZEN DU

Lehenengoa. Onartzea, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zerbitzuko langileen ordainsarien ehuneko 1,5eko igoera, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, 2025eko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariak oinarri hartuta.

Bigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena. Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da, argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua, hilabeteko epean, ebazpen hori eman duen erakunde berean; hori guztia, 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan xedatutakoaren arabera ( uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzi Errekurtsua arautzen duena), eta 39/2015 Legearen 123. artikuluan xedatutakoarekin lotuta ( urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa).

Vitoria-Gasteiz, 2026ko apirilaren 14a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Gizarte Politiken Saileko foru diputatua*

**GORKA URTARAN AGIRRE**

*Gizarte Zerbitzuen zuzendaria*

**MIREN SARATXAGA DE ISLA**